



Azpeitiko Udala

**ALKATETZAK 2020KO MARTXOAREN 5EAN EMANDAKO
EBAZPENA. HONEN BITARTEZ, AZPEITIKO UDALERRIAN ARAUBIDE
OROKORREKO BABES OFIZIALEKO 39 ETXEBIZITZA ESLEITZEKO
PROZEDURAN ONARTUAK ETA BAZTERTUAK IZAN DIRENEN
ZERRENDAK ARGITARATZEN DIRA.**

AURREKARIAK

Udalbatzak 2019ko urriaren 1ean egindako bilkuran Hiri Antolamenduaren Plan Orokorreko (HAPO) “Arana Ingurunea” HEN4 esparruko Esklabak-Iturzulo 4.3 azpieremuan 2. fasean eraikitzeakoak diren araubide orokorreko babes ofizialeko 39 etxebizitza esleitzeko prozedurari hasiera eman zion (bigarren fasea). Deialdiaren oinarriak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren 2019ko urriaren 7an.

Oinarrien laugarren atalean **2020ko martxoaren 2ko** data zehaztu zen, indarrean dagoen araudian aurreikusitako eskakizunak betetzen zituzten pertsonak edo bizikidetzak-unitateak, esleipen prozedura horretan parte-hartzea eskatzeko.

Eskaerak aurkezteko epea amaitu ondoren, eta oinarritzko baldintzak bete direla egiaztatu ondoren, onartuak eta baztertuak izan direnen behin behineko zerrendak osatu dira kupotan banatuta (orokorra eta etxebizitza egokituak), eta, kasuan kasu, baztertzeko arrazoiak zein izan diren adierazita.

Zerrenda horiek Azpeitiko udaletxeko iragarki-taulan eta web-orrian www.azpeitia.eus erakutsiko dira, hamar egun baliodunetan, eta denbora honetan baztertuak izan direnek erreklamazioa jartzeko aukera izango dute, uste badute erabaki hori ez dela arrazoizkoa edo justifikatua izan. Erreklamazioa idatziz aurkeztu beharko dute Azpeitiko Udalaren sarrera erregistroan, adierazitako arrazoiak frogatzeko oinarritzat jotzen dituzten agiriekin batera.

Eta eskumenari dagokionez, Toki Administrazioaren Oinarriak arautzen dituen Legearen 21. artikulua dioena ikusita (apirilaren 2ko 7/1985 Legea), **NAGORE ALKORTA ELORZA** alkateak **ERABAKI DU**:

1.- Hiri Antolamenduaren Plan Orokorreko (HAPO) “Arana Ingurunea” HEN4 esparruko Esklabak-Iturzulo 4.3 azpieremuan 2. fasean eraikitzeakoak diren araubide orokorreko babes ofizialeko 39 etxebizitza esleitzeko prozeduran onartuak eta baztertuak izan direnen zerrendak argitaratzea; zerrenda horiek Ebazpen honen 1. eta 2. eranskinetan jasotzen dira hurrenez hurren.

*Zerrenda horiek espedientean jaso dira.

2.- Prozeduran onartuak eta baztertuak izan direnen zerrendak hamar laneguneko epean jarriko dira jendaurrean erakusgai Azpeitiko Udalaren iragarki taulan eta web orrian www.azpeitia.eus. Baztertuak izan direnek denbora honetan erreklamazioa jartzeko aukera izango dute, uste badute erabaki hori ez dela arrazoizkoa

edo justifikatua izan. Erreklamazioa idatziz aurkeztu beharko dute Azpeitiko Udalaren sarrera erregistroan, adierazitako arrazoiak frogatzeko oinarritzat jotzen dituzten agiriekin batera.

Ebazpen hau tramitekoa da, eta ez du administrazio-bidea amaitzen.

Azpeitian, 2020ko martxoaren 5ean,
ALKATEA,



A handwritten signature in blue ink, written over the printed name "ALKATEA". The signature is stylized and appears to be "Nagore".